



## Nazioarteko boluntarioritza esperientzia: faseak eta protagonistak



GARA-PENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## Hezkuntza baliabideak ALBOAN

...

19. Pertsona errefuxiatuen begitarreak eta oinatzak.  
Jarduera-gida. Ikus-entzunezkoa materiala. (2007)
20. Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria.  
Lehen Hezkuntza. (2011)
21. Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria.  
DBH, Lehenengo zikloa. (2011)
22. Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria.  
DBH, Bigarren zikloa. (2011)
23. Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria.  
Batxillergoa. (2011)
24. Nazioarteko boluntariotza esperientzia: faseak eta protagonistak.  
(2011)

# Nazioarteko boluntarior esperientzia: faseak eta protagonistak



Dokumentu hau 6 dokumentuz osatutako bilduma bateko aleetako bat da. Dokumentu horiek erreferentziazkoak dira bai nazioarteko boluntarioen prestakuntzan dabiltzan prestakuntzarako, bai boluntario-lanean diharduten pertsonentzat. Dokumentuotan, gai bat garatzeaz batera, hura bakarkako nahiz taldekako dinamiketan lantzeko proposamenak jasotzen dira. Eskuartean duzun gaiaz gain, badira ere beste zenbait gairi buruzko dokumentuak: nazioarteko boluntarioen motibazioak, boluntariotza kulturarteko testuinguruetan; garapen-eredua; bide-laguntza eta gatazken kudeaketa azaltzen dutenak. Material horiek gure bulegoetan eska ditzakezu, bai eta gure web gunean ere: [www.alboan.org](http://www.alboan.org)

Argitaratzailea:

**ALBOAN**

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao  
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938  
[alboanbi@alboan.org](mailto:alboanbi@alboan.org)

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea  
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308  
[alboanna@alboan.org](mailto:alboanna@alboan.org)

Erronda kalea, 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia  
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267  
[alboangi@alboan.org](mailto:alboangi@alboan.org)

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Gasteiz  
Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676  
[alboanar@alboan.org](mailto:alboanar@alboan.org)  
[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

Egileak: **ALBOAN**

Data: Martxo 2011

Itzulpena: Bakun

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: Bi-913-2011

---

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

# Aurkibidea

## Hasteko

Sarrera	5
Zenbait kontzeptu argitze aldera	7

## Sakontzeko

Nazioarteko boluntariotza-motak	13
Historia eta bilakaera	14
Nazioarteko boluntariotza-programetarako legedia eta araudia	17
Boluntariotza-programen protagonistak	19
Boluntarioa	19
Bidaltze-erakundea	20
Harrera-erakundea	21
Nazioarteko boluntariotza, joan-etorriko bidaia	25
Aurretik	25
Bitartean	28
Ondoren	34

## Ondorio modura

Nazioarteko boluntariotzaren onurak eta arriskuak	37
Onurak eta indarrak	37
Arriskuak eta eragozpenak	38

## **Praktikan jartzeko**

Dinamikak	41
Bideo-foruma	49
Irakurketa osagarriak	53

*Azkar joateak ez du ezertarako balio, nora zoazen ez badakizu.*

*Bide zuzenean joatea, hori da garrantzitsuena.*

*Printze txikia - Antoine Saint-Exupéry*

## Hasteko

### SARRERA

Gizarte-erakundeak sinetsita daude nazioarteko boluntarioen programen eskutik sortzen diren topaketek aldaketak eragiten dituztela bat-egite horretan esku hartzen duten pertsonengan, elkarreengan eta komunitateengan; sinetsita daude boluntarioek aldaketak bultzatzen dituztela, eta beste balio batzuk sortzen, eta bide horretan, bestelako mundu baterako aukera egiazko bihurtzen duten herritarrak “gorpuzten” dituztela. Eta horretan sinesten dutelako bultzatzen dituzte, hain zuzen, programa horiek.

Globalizazioa bitzta publiko eta pribatuaren esparru eta eremu guztietan sortzen ari den aldaketen lekuko izaten ari gara azken urteotan. Boluntarioen programak, oro har, eta nazioarteko boluntarioenak, zehazki, ez daude salbuetsita aldaketa horietatik. Ezagun dira aldaketak programa horietara hurbiltzen diren pertsonen motibazioetan, adinean eta itzaropenetan, esaterako. Jendeak esperientzia labur eta berehalakoak bilatzen ditu nagusiki, unean uneko interesak asetzeko aukera sor dezaketen ekimenak; eta, aitzitik, epe luzeko esperientziak eskatzen duten konpromisoa alde batera uzteko joera nabari da. Esperientziak kontsumitzeko halako joera ere antzematen da, eta, horren ondorioz, programa horien kudeaketaz arduratzen diren erakundeak bete-betean ari dira helburuak, prozesuak, prestakuntza eta baldintzak berrikusten; azken batean, testuinguru aldakor horretara egokitzeko ahalegina egiten, beren identitate-zeinuari uko egin gabe, betiere.

Horrenbestez, eta abiatzear garen bidean abiapuntua finkatze aldera, boluntarioaren irudiari erreparatuko diogu lehenik eta behin, eta gure bizitzako epe jakin batean lanaldi osoko boluntario izateak zer esan nahi duen gogoeta egin eta sakonduko dugu.





## ZENBAIT KONTZEPTU ARGITZE ALDERA

Boluntarioak hor izan dira eta osagai funtsezkoa izan dira hasiera-hasieratik garape-nerako lankidetzan. Misiolariak, brigadistak eta gaur egungo boluntarioak, pertsona asko aritu da lankidetzaren aldeko borrokan, gaur egun lankidetzaz ulertzen dena egia bihurtzeko ahaleginean.

Era berean, nazioarteko boluntarioen lan hori gizarte-boluntarioen jardun zabalagoan sustraitu behar da ezinbestean; hain zuzen, jardun sozial zabalago horrek biltzen ditu eta gidatzen ditu elkartasuna, justizia eta aldaketa soziala bilatzen duten proiektu berri horiek. Ideologia ugaritako elkarteak (erlijiosoak, sindikalak, sozialak, etab.) aritu dira proiektu horiek kudeatzen, horietako asko historikoki. Eta 1990eko hamarkadatik hona erakunde publikoen babesak jaso dute elkarte horiek.

Gobernuz kanpoko erakundeak (GKE) era askotakoak izanik, era askotakoak dira, orobat, antzeko errealitatei buruz batzuek eta besteek erabiltzen dituzten terminoak. Zenbaitetan, ñabardura soil batzuetan dago aldea, eta, besteetan, nabarmenagoa da. Nolanahi dela ere, askotan, nahasketak sortzen dira, bereizi gabe erabiltzen direlako termino horiek. Adibide batzuk emango ditugu jarraian.

**Nazioarteko boluntarioa** kontzeptuari dagokionez, nekez aurkituko dugu guztiek aho batez onartutako definiziorik. Kontzeptua mamitzen hasteko, hitzaren etimologia hartuko dugu abiapuntu. Hala, latineko *voluntas* delakotik dator boluntario hitza; norberaren aukera pertsonal gisa itzul daiteke. Egile eta erakunde publikoak bat dotoz, orobat, ondorengo definizioarekin: pertsona batek bere denbora, indarra, sormena edota trebetasun zehatzak testuinguru formal batean eta epe jakinean eskaintzeko aukera; aukera aske, borondatezko eta elkartasunezkoa.

Hainbat definizioen artean, UNESCOk zehaztutakoa erreferentzia bihurtu da nazioartean. Definizio horren arabera, zera da nazioarteko boluntariotza: “pertsona batek marko formalean eta denbora-epe jakinean agertutako konpromiso altruista; pertso-

na horrek bere denbora edota gaitasunak modu askean eta doan eskaintzea. Boluntarioak bere jarduera egin ahal izateko zenbait baldintza bete behar dira praktikan: zehazki, biziraupenerako eta garraiorako dituen gastuak ordaindu behar dira, eta babes soziala eman behar zaio<sup>1</sup>.

Definizio hain orokor hori dela eta, boluntarioak era askotakoak izan daitezke, jardun hori zer testuingurutan eta egoera zehatzetan garatzen den. Horrenbestez, krisi garaian egoera zailean dauden pertsonen laguntzen dieten pertsonen irudia ekarriko die zenbaiti boluntario terminoak; beste batzuentzat, berriz, aldaketa (soziala, kulturala, ingurumenari loturikoa, etab.) bultzatzeko bidea izan daiteke boluntario izatea, edo biziraupen hutsaren aldeko borrokarekin bat egiteko modua. Boluntario izateak edozein forma hartzen duela ere, jardun horrek funtsezko hiru desberdintasun ditu ordaindutako jarduerekin edo aisialdiarekin alderatuta: (1) jardueraren oinarritzko helburua ez da ordainsari ekonomikoa lortzea, (2) modu askean egiten da, inolako bortxarik edo presiorik gabe eta, azkenik, (3) komunitatearen mesederako egin behar da, nahitaez. Gainera, ona da, hala pertsonentzat nola elkarteentzat, boluntario izateak beste era bateko ordaina edo saria ekartzea, pertsona moduan edota profesional moduan.

Definizio eta ezaugarri horiek guztiak oinarritzat edo abiapuntutzat hartuta, boluntario hitzari egiazko esanahia ematen hasteko moduan gara; izan ere, kontzeptua gorpuzteko beharrezkoa da esperientzia pertsonala<sup>2</sup> eta praktika kontzientea. Esperientzia horrek aukera emango digu terminoa egunez eguneko jardunera egokitzeke, eta jardun horrek, aldi berean, hitzaren definizioa berrelikatuko du. Era horretara, boluntario izatea aukera kontziente bihurtzen da, gure izatea eta gure egitea baldintzatzen duen aukera.

**Misoliariak** dira, ebanjelioa iragartzea eginkizun nagusitzat izanik, egoera pobretuetan bizi diren pertsonen laguntza ematen dieten pertsonak, berdin gizonezkoak zein emakumezkoak, erlijiosoak nahiz laikoak.

**Lankideak (profesionalak)** dira laguntza jasotzen duten herrialdeetan garapenerako lankidetzan edo laguntza humanitarioan lanean diharduten guztiak, langilearen kontratuaren ezaugarriak edozein direla ere (iraupen motzekoa edo luzekoa, etab.)<sup>3</sup>. Pro-

---

<sup>1</sup> UNESCO. Gazte boluntarioen arloan dauden programen azterketa eta planteamendu berritzaile baterako UNESCOren proposamenak. 160 EX/44, UNESCO, Paris, 2000

<sup>2</sup> **Esperientzia.** Horrek esan nahi du gizakiaren afektuzko dimentsioak kognitiboak adina esku hartu behar duela jardunean; izan ere, barne-sentimendua ez badao jakintza intelektualaren eskutik, ikasitakoak ez du pertsona ekintzara mugiaraziko. Pedagogia Ignaziarrean, ezagutzaren bidez aztergai den errealitatera hurbiltzeaz gain, pertsonak afektuzko sentimendu bat ere hautematen du. DE LA PUENTE, F.: *Pedagogía Ignaciana. Un planteamiento práctico*. Madril, CONEDSI, 1993, 19-20.

<sup>3</sup> Lankideen Elkarte Profesionalaren definizioa.

fesionala da, beraz, lan-kontratuarekin laguntza jasotzen duten herrialdeetan -hau da, tokian bertan- garapenerako lankidetzan edo laguntza humanitarioan dihardue-na. Espainian Estatutua dute lankideek, beren baldintzak eta onarpena arautzeko<sup>4</sup>.

**Brigadistek** taldean bidaiatzen dute Hegoaldeko herrialdeetara, gizarte-erakunde eta -mugimenduen eskutik, bertatik bertara jakiteko herrien errealtate eta borroken berri, haiekin batera bizitzeko eta, itzuleran, hango egoeraren gaineko salaketa eta sentsibilizazioa zabaltzeko eta han bititakoa transmititzeko. Zenbaitetan, lan jakinak ere egiten dituzte; beste zenbaitetan, berriz, bisitak eta bizipen- eta informazio-trukeak baino ez.

Testuingurua aldatzearekin, bestelako proposamenak eta joerak sortu dira, hala nola **elkartasunezko turismoa edo bidaiak**. Tokian tokiko herritarren gain ingurumen, gizarte, kultura eta ekonomia aldetik eragin dezakegun inpaktua onarturik, bertako biztanleekin zuzenean erlazionatzeko aukera sortzen du bidaiatzeko molde horrek eta, era horretara, herri horien garapena sendotzen laguntzen du. Turismo-mota horrek tokiko herritarren alde egiten du eta haien parte-hartze osoa du.

Orain arte aipatutakoak GKE-ek eskainitako proposamenak dira ia guztiak. GKE-etan **praktikak** egiteko aukera ere bada, eta, batez ere Nazio Batuen (NBE) sistemari loturiko erakundeetan; eta, orobat, hor da administrazio publikoek praktika horiek egiteko eskaintzen dituzten bekak lortzeko aukera ere. Praktika horietan, tokiko erakundeetan egin daitezkeen praktketan ez bezala, administrazio-lan handiagoa egin behar da, eta zailagoa da herritarrekin bertatik bertara lan egin ahal izatea.

Aurrez azaldutako esperientziak, bakoitza bere espezifikotasunetik, hainbat ekarpe-nen iturri dira eta erabilgarriak izan daitezke, ondorengoan arabera: tokian tokiko jar-duna zer-nolakoa den, eta motibazioak, itxaropenak eta beharrianak zein diren. On-dorengo eskeman bereizten dira aukerak, iraupen motzekoa edo luzekoa den, eta enginkizunean edo topaketan, indar gehiago non egiten den aintzat hartuta:

eginkizunean / garapen profesionalean indar handiagoa			
iraupen motzekoa	BEKAK/ PRAKTIKAK	LANKIDEA	iraupen luzekoa
	BRIGADISTAK ELKARTASUNEZKO TURISMOA	BOLUNTARIOAK MISIOLARIAK	
topaketan / hazkunde pertsonalean indar handiagoa			

<sup>4</sup> Ikus <http://solidaridad.universia.es/archivos%20pdf/Estatuto.pdf>



# Sakontzeko

Boluntario izateko har dezakegun aukera edo definizio zehatzetik haratago, nazioarteko boluntarioez ari garelarik, hiru alderdi oso garrantzitsu hartu behar ditugu kontuan:

- 1. *Dimentsio geografikoa.*** Mundu globalizatu batean bizi gara, eta distantziaren mugak murrizten joan dira pixkanaka-pixkanaka. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek, orobat, murriztu egin dute duela urte batzuetara arte lankidetza programetan hara eta hona joaten ziren pertsonen isolamendu familiarra eta soziala. Alabaina, nazioarteko boluntario askorentzat desplazamendu horrek sortzen duen deserrotzea muga gehigarri ere bihur daiteke, berez bete beharreko lanaren zailtasunari gehitu ohi zaion muga, alegia. Eta ez da azaleko kontua deserrotzearena. Eta boluntarioarentzat distantzia luzeko lehen bidaia denean, are eta garrantzitsuagoa da aipatutako alderdi hori.
- 2. *Kultura-arteko dimentsioa***<sup>5</sup>. Erljio, gastronomia, jokabide aldetik, baita aisialdiko ohituren aldetik ere, kulturen artean izan daitezkeen aldeek baldintzatu egin dezakete boluntarioen eta harrerako herritarren arteko harremana. Errealitatea zein den ez jakitea, gehiegizko itxaropenak, estereotipo zurrunegiak, alderdi horiek guztiak kaltegarriak izan daitezke boluntarioaren ezinbesteko integrazioarako.
- 3. *Hizkuntza.*** Askotan, harrerako komunitatearen hizkuntza menderatzea oso-oso garrantzitsua da boluntario moduan lan egiteko. Bestetan, funtsezkoa da harre-

---

<sup>5</sup> Kulturen arteko gaia eta kulturen arteko gatazkak boluntarioen aldetik nola kudeatu sakonago jorratzen da ALBOANek bilduma honetan: Kulturartekotasuna, multikulturalismoa, boluntarioentzako erronkak (zk. 27) eta Nazioarteko boluntariotza esperientzia: kulturen eta pertsonen gurutzaketa, aukera edo gatazka? (zk. 28).

man ez-formalak sortzeko eta indartzeko, harreman horien bidez emozio aldetik eroso eta gustura sentitzeko eta energia psikologikoa berreskuratzeko, era horretara, lankidetzaz zeregina behar den moduan betetzeko. Boluntarioak denbora asko igarotzen badu berak bakarrik hizkuntza menderatzen ez duen egoeretan, hainbat ondorio izan daitezke taldearen komunikazio-sarean, eta horrek, azkeneko, erlazionatzeko bere gaitasuna ezbaian jartzera eta bere buruarekiko estimua gutxitzera eraman dezake. Alabaina, garrantzitsua da nabarmentzea nazioarteko boluntarioen programa bat ez dela hizkuntzen ikastarotzat hartu behar.

## NAZIOARTEKO BOLUNTARIOTZA MOTAK

Boluntario izateko programa guztiak ez dira berdinak. Izan ditzaketen ezaugarri komunak aintzat hartuta, hiru modalitate nagusitan bil daitezke:

- **Esku-hartze esparruaren** araberakoa izan liteke lehen sailkapena; hau da, boluntarioek zer esparrutan jarduten duten, boluntariotza izan daiteke gizarte-arlokoa, kultura-arlokoa, larrialdi eta hondamendi naturalen edota ingurumenaren zainketaren arlokoa. Sailkapen behartu samarra da; izan ere, askotan esparru horiek batera egokitzen dira nazioarteko boluntarioek parte hartzen duten programetan.
- Emandako laguntza-motaren arabera egiten da beste sailkapen bat. Alde horretatik, bereizi egiten dira **elkarrekiko laguntza, filantropikoa, hirugarren pertsonei eskainitako zerbitzuak**, ekimen zibikoetan parte hartzea, edota boluntarioak sentsibilizatzeko jarduerak. Sailkapen konplexua da; izan ere, gizarteko beste hainbat jarduera bezala, boluntario izatea eskualde jakin bateko historia, politika, erlijio eta kulturaren araberakoa da hein handi batean, eta, beraz, zenbait tesuingurutan oso zaila da sailkapen hori bereiztea.
- Programen **iraupenak** ere eragiten du, noski, boluntarioen jardunean. Horren arabera, honela sailkatzen dira programak: (1) iraupen motzekoak, normalean auzolandegi deritzenak, gehienez ere hilabete ingurukoak; (2) iraupen ertainekoak, hilabete bat eta sei artekoak; eta (3) iraupen luzekoak, edo sei hilabetetik gorakoak.
- Boluntarioen **adina** eta **jarduera-mota** dira kontuan hartu beharreko beste bi alderdi. Langile trebatuak dituzten proiektuak iraupen ertaineko edo luzeko programei loturik egoten dira, eta boluntario helduak aritzen dira lanean; iraupen motzekoetan, aldiz, joera da gazteak jardutea eta, batzuetan, espezializatu gabeko jendea. Salbuespenak ere badira; larrialdi-egoeran dauden herrialdeetara

lan jakin batera jotzen duten talde espezializatuak, esaterako. Lurrikarak edo hondamendi naturalak gertatzen direnean laguntzera joaten diren suhiltzaileak, adibidez.

- **Taldearen tamaina** ere (zabala, txikia edo pertsona bakarra) loturik dago partai-deen adinarekin, espezializazio-mailarekin eta laguntza eskainiko den denbora-eparearekin. Oro har, boluntario gazteenek iraupen motzeko programetan eta talde handietan hartzen dute parte, eta lanbide batean trebatutako helduek, berriz, talde txikietan edo bakarrik.
- Azkenik, aipatzekoa da UNESCOk (2000) bereizi egiten dituela **dedikazio** osoko boluntarioak eta dedikazio partzialekoak. Boluntario-jarduna pertsona horren okupazio nagusia denean, dedikazio osokoa esaten zaio; aldiz, dedikazio partzialeko boluntarioen parte-hartzea lotuago dago asteko edo hilabeteko ordutegi jakin bati. Nazioarteko boluntarioak dedikazio osoko taldean daude.

## Historia eta bilakaera

Nazioarteko boluntarioen kopuruak gora egin du azkeneko urteotan eta, bultzada horren adierazle, lankidetzako nazioarteko programetan gero eta jende gehiagok esku hartzen du gaur egun. Hazkunde horren adierazgarri dira, orobat, gero eta ugariagoak diren eta diziplina askori (ekonomiari, psikologiari, zuzenbideari, hezkuntzari, soziologiari, osasunari...) loturik dauden programak.

Erakundeek gero eta gehiago hartzen dute aintzat nazioarteko boluntarioen programen eginkizuna eta garrantzia. Onarpen horren isla da administrazio publikoak horrelako esperientziei ematen dien bultzada eta babesa. Hainbestetan aipatuko hiritar globalak sortzea da bultzada horren helburua, onaturik horrelako esperientziak leihorekiak direla: kulturen arteko elkarrizketarako eta desberdinak direnak ulertzeko. Alabaina, programa horietarako araudia oso gutxi garatu da orain arte eta laguntza ekonomikoa ere eskasa da. Horren ondorioz, nazioarteko boluntarioen programak kolokan izaten dira askotan.

Aitzitik, gizarte zibilak eta gobernuz kanpoko erakundeek urte asko daramatzate boluntarioen esperientziak babesten eta sustatzen. Pertsonen esku-hartze, parte-hartze eta konpromisozko prozesu jarraitutzat hartzen da boluntario izatea.

Lan batzuk, jatorriz, garai kolonialekoak dira, misiolarien esperientziak ugariak izan baitziren garai hartan mundu zabalean. Proiektu horien eskutik aurrerapen handiak izan ziren hainbat komunitatetan hezkuntza, elikadura eta osasun arloetan; alabaina, funtsean, misiolarien esperientzia horiek noranzko bakarrean izaten ziren. Pertsona



“onuradun pasibo” baten eta pertsona “argi eta eraberritzaile” baten artean sortzen zen truke harremana zen misiolarien jardun haren bereizgarria.

Tokiren batean, beharbada, izango dira oraindik horrelako ekimenak, baina kolonialismoa amaitzearen eraginez eta nazioarteko erakundeek egindako lanaren eraginez, aldatu egin zen pentsamoldea herrialdeen arteko harremanetan, eta hainbat egitasmo, erakunde eta agentzia jarri ziren martxan, nazioak berregiteko, herrialdeak elkarren artean adiskidetzeko eta haien garapena bultzatzeko.

Gaur egun, hirugarren sektoreak izan duen birmoldaketa-prozesuak eta zabalkunde handiak eraginda eta globalizazioaren fenomenoak lagunduta, boluntarioen elkarte txiki ugari sortu da han eta hemen. Aurreko garaietan, laguntza ematea zen oinarriko helburua eta, gaur egun, aldiz, justizia soziala eta elkarrekikotasuna da elkarte horien lanaren eta planteamenduen bereizgarria. Lan horren gero eta eskari handiagoa dago, gainera.

Nazioarteko boluntarioen jarduna, ikuspegi horretatik, beste hondar ale bat besterik ez da, beste pertsonekin eta zenbait baliorekin (berdintasuna, errespetua eta justizia soziala, esaterako) hartutako bizitza-konpromiso jarraitu horren baitan.



## **NAZIOARTEKO BOLUNTARIOTZA PROGRAMETARAKO LEGEDIA ETA ARAUDIA**

Oro har, esan liteke orain dela gutxikoa dela boluntarioen jardunari buruzko legedia. Herrialde gutxi arduratu ziren boluntarioen programen gai juridikoei buruz 2001 arte; Boluntarioen Nazioarteko Urtera arte, alegia. Ekitaldi hori prestatzeko lanetan ari zirela, ohartu ziren hainbat erakunde eta elkarte boluntariotzaren aldeko legedia faktore garrantzitsua izan zitekeela jardun hori garatzeko. Dena dela, oraindik ere egiteko dago lan hori.

Legeek eta arauak ezin dute boluntariotzaren ingurunea zehaztu, baina hori horrela izanik ere, helburu murriztailerik ez duten legeek bermatu egin beharko lukete jardun horren printzipioak ulertzea eta errespetatzea. Gure ingurunean, Espainiako legedia eta autonomia-erkidegoetako legedia oso lagungarriak dira boluntarioen programetarako, baina ez dute nazioarteko boluntarioaren irudia jasotzen.

Horren harira, gobernuz kanpoko erakundeek gai horrekiko kezka azaleratu dute. Kezka horiek alor horretan izaniko esperientzi propioaren ondorio dira; izan ere, bisak lortzeko, boluntarioen lana aintzat hartzeko eta bestelako zailtasunak tarteko, hainbat eragozpen izaten dituzte beren lanean. Nabarmentzekoa da, boluntarioen jatorrizko herrialdearen arabera eragozpen horiek handiagoak edo txikiagoak izango direla. Horrela, herrialde pobretuetatik datozen pertsonentzat zailagoa da bisak lortzea eta beren herrialdetik atera ahal izateko lege eta ekonomia aldetik dituzten zailtasunak gainditzea. Horren harira, gehien-gehienetan boluntarioen jarduna noranzko bakarrean gertatzen da: Iparretik Hegora. Gai horrek berebiziko garrantzia du nazioarteko boluntarioen diskurtsoan. Ohituraz nazioarteko boluntarioak hartu dituzten herrialdeen eta herrialde igoerleen artean berdintasun handiagoko harremana aldarrikatzen du diskurtso horrek.

Legeak ez ditu nazioarteko boluntarioak boluntarioen multzo orokorrean barnebiltzen eta, gisa berean, hainbat gizarte-erakundek ere bereizi egiten ditu bata eta

bestea; hau da, ezaugarri batzuk berdinak izan arren, beste asko desberdinak ditzutela irizten diote. Horren ondorioz, boluntarioen alde diharduten erakunde eta elkarten sare eta plataforma askotan ez dira aintzat hartzen nazioarteko boluntarioak eta, horrenbestez, ez da haientzat hobekuntzak lortzeko lanik egiten.

Boluntarioen marko juridikoak baldintzatuko du, hein handi batean, boluntarioak ugaritzea eta pertsonen bizimodua hobetzeko indar eraginkorra bihurtzea. Boluntarioei dagokienez, horrek eskatzen du lan boluntarioa egin ahal izateko zuzenbide juridikoa eta beharrezko babesa egon daitezen bermatzea, eta jardun horren balioa publikoki onartua eta sustatua izatea<sup>6</sup>. Eta gizarte-erakundeei dagokienez, berriz, horrek eskatzen du administrazio-arloko bitartekoak arintzea, programetarako bideratutako baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak areagotzea, eta administrazio publikoaren babesa bermatzea.

---

<sup>6</sup> Gurutze Gorriaren eta Ilargi Erdiaren Elkarten Nazioarteko Federazioa (2007). *Boluntarioen lanari garrantzia ematea. 1999-2007 epeari dagokion txostena. Boluntarioen garapena Nazioarteko Federazioan*. Geneva: Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorri Erdiaren Elkarten Nazioarteko Federazioa, 10 or.

## **BOLUNTARIOTZA-PROGRAMEN PROTAGONISTAK**

Nazioarteko boluntariotza-programetan hiru hauek dira eragile funtsezkoak: boluntarioak berak, bidaltzen dituen erakundea, eta hartzen dituen erakundea.

### **Boluntarioa**

Bere energiarekin, ideiekin eta jarduerarekin nazioarteko programa arrakastatsua izaten lagunduko duen pertsona da. Pertsona bat, bere ingurunetik mila-kilometrora, boluntariotza-proiektu batera bultzatzen duten arrazoiak oso garrantzitsuak dira; baina, era berean, partaideen heldutasunak eta indar psikologikoak ere berebiziko eragina dute beren bizipenetan eta pertsonekin, elkarrekin eta erakundeekin parte hartzeko eta erlazionatzeko moduan.

Nazioarteko boluntariotza-programetan parte hartzen duten pertsonek bizitza-proiektu bat eratzeko joera izan behar dute, behar bezala kontrastatutako filosofia propioa eta egiazko balioak (ez gurasoenak) oinarri direla. Neurri batean, bizitzan bide bati heltzea erabaki dute gizon eta emakume horiek, eta boluntario izateko proiektu baten alde egin dute, izateko, pentsatzeko eta bizitzeko modu jakin batekin koherente jokatuz, moda sozialak eta esperimendu pertsonalak alde batera utzita.

Pertsona horiek ez dute kanpoko laudorio, errespetu eta ordainsariaren atzetik irrikan ibili behar; aitzitik, beren buruarekiko errespetu eta estimu nahikoa izan behar dute, zer nahi duten eta zer diren jakiteko. Pertsonari eta gizarteari buruzko ikuskeraren barruan, doakotasunaren kulturen eta justizia sozialari buruzko ideien baitan, hor du zentzua laguntzak eta lankidetzak; hau da, laguntzak ezin du norberaren ziurgabetasunen ondorio izan, ez eta zerbaitetarako balio dugula sentitzeko eta gizartean onartuak izateko premiaren ondorio ere.

Frustrazioaren eta anbigutasunaren aurreko tolerantzia, aldaketari zabalik ego-  
tea, malgutasuna eta dogmatismorik ez izatea, ezaugarri lagungarriak izango  
zaizkio nazioarteko boluntarioari egokitzeko, errealitatearen zentzuarekin ingu-  
rune berriak hautemateko eta harrerako komunitateko kideekin erlazionatzeko.

Garrantzitsua da boluntarioak nortasuna zehaztu samar izatea, nor den eta bizi-  
tzan zer nahi duen jakitea, horrek aukera emango baitio bere uste sendoen ara-  
bera jokatzeko, besteen ikuspegiak errespetatuz betiere. Alabaina, ziurtasun ho-  
rrek ez du muga zurrun bat izan behar, eta boluntarioek gai izan behar dute,  
beharrezkoa bada, beren bizitzaren norabidea eta balioak ezbaian jartzeko. Nor-  
tasun heldu hori funtsezkoa da, halaber, enpatia esperimintatzeko, arazoak senti-  
tzeko eta sentimenduak ulertzeko, haietan galdu gabe. Ona da, era berean, ge-  
nero ezberdintasunez kontziente izatea eta nola hauek emakume eta gizonengan  
intzidentzia ezberdina duen; nola hauek gure pertsonalitatea, garapen aukerak  
moldatzen dituzten; eta nola boluntariotza esperientzia baldintzatzen duten, bai  
bizipen pertsonalean bai beste pertsonekin dugun harremanean.

Azkenik, pertsona horiek jator jokatu behar dute, sakontasunez komunikatzeko  
gai izan behar dute, maitatzeko eta maitasuna jasotzeko eta elkartasuna adieraz-  
teko gai, eta ez dute oraindik existitzen ez duen etorkizunaren hipotekarik jasan  
behar. Aipatutako elkartasun horrek orainean sustraitu behar du; hau da, ez du  
iraganeko erruduntasunen ondorio izan behar. Garrantzitsua da lanari bokazioz,  
sormenez eta nolabaiteko umorez heltzea, errutinaren atzaparretan jausi gabe.

Boluntario izateko prozesuan eta prestatzeko faseetan ere lantzen dira gaitasun  
horiek. Ez dugu ahaztu behar, nolana ere, ezaugarri horiek ideal baten isla direla,  
lanerako oinarria, prestakuntza nola antolatu eta zuzendu erakusten digutelako.

## **Bidaltze-erakundea**

Jatorrizko herrialdean, nazioarteko boluntariotza esperientzian esku hartzen  
duen erakundea edo elkarte da.

Hainbat egilek zehazten duten moduan, boluntariotza-programek ondo funtzio-  
natuko badute, zenbait baldintza bete behar dituzte. Lehen baldintza bolunta-  
rioen hautaketa da. Noski, oinarrizko premisa da harrerako komunitatearen be-  
harrizanei eta eskariei arreta ematea, baina premisa horretatik abiatuta,  
organismo bakoitzak hainbat irizpideren arabera zehazten ditu boluntarioen pro-  
filak: zer konpromiso eskatzen den, zer eginkizun dagoen, zenbateko espezializa-  
zioa behar den, etab.

Hauxe da boluntario izateko baldintza itxuraz ezinbestekoa, baita nazioarteko boluntario izateko ere, jakina: pertsona horiei babes soziala ematea (UNESCO, 2000). Zenbaitetan, erakundeek beren gain hartzen dituzte bizirauteko eta garraiorako gastuak, eta bidaiako beste zenbait gastu ordaintzeko diru apur bat ere eskaintzen diete inoiz. Horrenbestez, beste herrialde batean diharduten boluntarioez ari garelarik, kontuan hartu behar dugu pertsona horiek ostatu hartzeko, mugitzeko, elikatzeko, segurua izateko eta abarretarako dituzten gastuak ziurrenik bere gain hartu dituela erakunderen batek. Hau da, atzerrian diharduten boluntarioen kostua nabarmen handiagoa da herrialdean bertan dihardutenena baino.

Programa horiek lantzen dituzten erakundeen beste beharizanetako bat boluntarioak prestatzea da (kontzeptuak, jarrerak eta trebetasunak irakastea). Beste bat prestakuntzaren egokitzapena da aintzat hartuta, eta, beharrezkoa izanda, boluntarioa gizona edo emakumean den. Lan horiek ez dira bukatuko proiektuaren ebaluazioa itxi arte eta itzulerako laguntza burutu arte.

### **Harrera-erakundea**

Jomugako herrialdean nazioarteko boluntarioei harrera egiten dien erakundea da. Nazioarteko boluntariotzan ardura duten pertsonen eginkizun nagusietako bat da boluntarioak hartzeko eta nazioarteko boluntariotza-programa batean parte hartzeko interesa izan dezaketen erakundeak aurkitzea. Nazioarteko-programek bilakaera bat izan dute, eta beren gain hartu dute harrera-herrialdeak eta elkarteak proiektuaren fase guztietan inplikatzekeo erronka: boluntarioen prestakuntza-, harrera- eta itzulera-faseetan, hain zuzen.

Boluntarioak bidaltzen eta hartzen dituen erakundeen artean eta, areago, herrialdeen artean zubiak eta lokarriak sortzea, horra nazioarteko boluntariotza-programen ekarpen nagusietako bat. Esku hartzen duten bi erakundeen artean ezinbestekoa da komunikazio ona eta etengabekoa izatea, boluntarioaren bidalketa prestatzeko eta egonaldia antolatzeko. Aukeraketa honetan sexu ezberdinei aukeran ematen zaizkien hautabideen kontzientzia hartzea komenigarria da. Beharrezkoa da emakumeentzako eta gizonentzako interesgarria gerta daitezkeen eskaintzak ahalbidetzea, eta aukeraketan komeni da bi sexuen artean, ekitatiboki, boluntariotza sustatzea.

Boluntarioa iritsi aurreko prestakizunak funtsezkoak dira. Herreraz eta, beharrezkoa balitz, interpretea bilatzeaz arduratuko den pertsona izendatu behar da. Bizilekua prestatu behar da eta logistikako hainbat gai lotu behar dira (garraioa eta

bestelako baliabideak, adibidez), boluntarioa ingurune hurbilenean eta erakundeetan bertan integra dadin errazteko.

Boluntario bakoitzak zer eginkizun eta ardura izango duen modu egokian banatzea funtsezkoa da boluntarioen motibazioari eusteko eta proiektua arrakastatsua izateko. Hori dela eta, garrantzitsua da alde aurretik ondo zehaztea nolako izango den boluntarioen lanaldia, zer eginkizun, ordutegi eta laguntza izango dituzten eta zer trebetasun baliatu beharko duten. Eskaintzen eta ordutegiak eta ekintzak antolatzeke aukeren aurkezpenean komeni da aintzat hartzea boluntarioa gizona edo emakumea izan egindako eskaintza ezberdinak. Harrera-erakundeak pertsona boluntarioaren sexua alde batera utziz aukera berdintsuak izan ditzatela bermatu behar du. Nolanahi dela ere, boluntarioak tokira iritsi eta haiekin hitz egin ondoren, berregokitu egin daitezke xehetasun horiek guztiak.

Atsedendia ere oso garrantzitsuak dira; izan ere, askotan egonaldi ertaineko edo luzeko programak izaten dira eta beharrezkoak dira atsedenerako tarte horiek, topaketarako eta konfiantzazko eta adiskidetasunezko harremanak sortzeko.

*Bi munduk elkar topatzeko ahalegina adierazten du gure ikuspegitik boluntario izateak. Bi mundu horiek alde handiak dituzte geografia, kultura eta garapenaren aldetik; baina, aldeak alde, gizatiarragoak, bidezkoagoak, anaiartekoagoak izan nahi dute. Bi mundu horiek ez dituzte modu pasiboan onartzen gaur egungo garapenerako proposamenak; ez dute onartzen mundua nola antolatu den. Boluntarioek “odol berria” adierazten dute guretzat, indarra bideratzeko modua eta bestelako mundu bat eraikiz aurrera egiteko bideen bilaketa. Elkar topatzen duten bi kulturen arteko topaketa da boluntarioria, eta esperientzia horrek bi kulturak eraldatzen ditu, biok ala biok berritzen ditugu erreferentziazko oinarriak, berritzen ditugu balioak, egiten ditugu ekarpenak bestelako mundu baten alde.*

Carmen de los Ríos. Ilo-Peru,  
Memoria VOLPA 2001

*Boluntarioek behar edo erronka bikoitz bati erantzun diezaioketela uste dugu:*

*Hau da **lehenengo erronka**: “Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak gizatiartzea”. Izan ere, harreman horiek erabat desitxuratzen ditu sistema neoliberal egoistak eta materialistak, zeinak mendebaldeko kultura-eredu baztertzailerak eta ankerra –gizakia ekonomiaren menpe jartzen duena- inposatzen duen.*



*Pertsonen, kulturen arrazen... arteko harremanaren bidez, boluntarioak “bakearen kultura” bultzatzen du, justizian, berdintasunean eta solidaritatean oinarritutakoa.*

*Nazioarteko harremanak gizatiartzeak esan nahi du “boterearen” logika, “guztia dakienarena”, “goian dagoenarena” aldatzea, eta, haren ordez, “errespetuaren, elkarrizketaren, desarmatzearen, bestearen egia aitortzearen eta besteekin partekatatu, ikasi eta bizitzearen” logika onartzen du.*

*Hori egitea zailagoa gertatzen da bestea baztertuta sentitzen denean. Sistemak ezartzen dituen mailak gainditzeko elkarrizketa eta berdintasun gehiagoko espazioak erabiltzea utopikoa edo artifiziala iruditu daiteke. Baina boluntarioen esperientzia horiek ekarpen eta keinu sinboliko probetxugarriak egiten dizkiete bai Iparraldeari eta bai Hegoaldeari.*

*Sistemaren aurreko askatasunarekin eta malgutasunarekin gazte garaian bizitako esperientzia horiek boluntarioen bizitza eta haien ingurukoena baldintza dezakete.*

**Bigarren erronkak**, berriz, profesionalki eta teknikoki eraginkorra izatea eskatzen du, boluntario baten laguntza eskatzen duten lekuetako garapen-proiektuen behar zehatzei erantzuteko.

*Kulturen arteko elkarlan horretan, Iparraldeko boluntarioak, profesionaltasuna izateaz gain, lan egiteko gaitasun zabala, malgua eta sortzailea izatea espero da. Zerbitzuak emateko dauden mugei buruzko espiritu kritikoa izan behar du, eta alde batera utzi gurasokeria, mendekotasun- edo kultura-transferentzia oro, bertiere prozesuak eta errealtateak errespetatuz.*

*Epe luzean, Iparraldeko boluntarioak Hegoaldeko erakundeen aliatu estrategiko bihurtu daitezke, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko truke sozial eta teknologikoaren bidez.*

*Zerbitzu teknikoari dagokionez, boluntarioak gai izan behar du talde-lanean aritzeko eta beste kultura-eredu batzuetara egokitzeko hainbat arlotan: funtzionamendua, denboraren erabilera, komunikazioa, diziplina, gardentasuna, arlo profesionalaren eta pertsonalaren balorazioa. Eta ez da dirudien bezain erraza. Atzerrikoa dena neurritz gain balioesten da, eta beharrezkoa da bertakoa lantzea eta balioestea.*

*Boluntarioak konturatu behar du solidaritatea beharrezkoa dela baliabiderik edo teknologiarik ez duten taldeetan, eta mendekotasunik sortuko ez duten irtenbi-*

*deak bilatzen lagundu behar die. Halaber, ez da egokia kanpoko laguntza justifikatzen aritzea, proiektuek dituzten zailtasunak aitzakiatzat hartuta. Elkarren artean, testuinguru globalaren menpe dauden errealitateetan egin beharreko aldaketa zailei irtenbideak bilatzen saiatu behar dugu. Espazio txikietan borrokatzea da gure lana.*

*Bi erronka horien bidez, Iparraldeko boluntarioek “mistika sozial” bat eta kulturarteko elkarrizketa bultza dezakete, non, hartu-eman horizontal baten bidez, bi aldeek ekarpenak balioetsiko diren. Hala, proiektu bateko kontratupeko lankideak izateaz gain, arlo pertsonal eta sozialeko proiektu handiago baten partaidea izan daitezke.*

*Bestalde, “protagonista edo lider” rola ez hartzea gomendatzen da, tokikoek garapena oztopatzen dutelako.*

*Prozesu horiek eskatzen duten denbora onartu behar da, pixkanaka egokitzen joateko, diferentziak eta prozesuak menderatzeko; eta zatiketak eragin beharrean, elkarrizketarako eta adostasunerako elementu bihurtu behar da.*

*Santiago Vallebuona W.<sup>7</sup>*

Aipatutako protagonistez gain, beste kolektibo batzuek ere esku hartzen dute nazioarteko boluntarioritza esperientzia horretan: hala nola boluntarioari harrera-herrialdean abegi egiten dion komunitatea, eta boluntarioak etxetik abiatzerakoan uzten duen eta, esperientzia bukatutik, itzuleran zain izango duen komunitatea.

---

<sup>7</sup> ALBOAN (2007). *Nazioarteko boluntarioritza erronkak gaur egun, Hegoaldetik ikusita*. Bilbo. Esperientziak bilduma 4.

## NAZIOARTEKO BOLUNTARIOTZA, JOAN-ETORRIKO BIDAIA

Hegoaldean esperientzia batean parte hartzeko asmoarekin erakundeetara hurbiltzen diren pertsonak gutxitan jabetzen dira alderdi hauetaz: ekimenaren iraupena harrerako herrialdean egindako egonaldia baino luzeagoa dela; borondate onarekin ez dela aski, aurrez nolabaiteko prestakuntza beharrezkoa dela; eta askotan ezkutuan mantentzen den kostua duela esperientziak. Esperientziaren iraupenari dagokionez, hiru une izaten dira: AURRETIK, BITARTEAN eta ONDOREN. Une bakoitzak ditu bere berezitasunak eta eskakizun aparteak, aintzat hartu beharrekoak guztiak.

### Aurretik

*Mundua aldatzen hasteko, gure burua aldatu behar da lehenbizi, eta gure burua berritzeari ekiteko barnean sartzen ditugun irudiak aldatu behar dira aurrez: gure hormetan zintzilikatzen ditugun irudiak eta gure bihotzetan daramatzagunak.*

*Ward L. Kaiser*

Esperientziaren “aurrekoa” bidaiaren prestakizunari loturiko guztia da, eta harrerako herrialdean egingo den egonaldiaren araberakoa izango da iraupen aldetik. Etapa hori funtsezkoa da; izan ere, hor finkatzen dira oinarriak gero atzerrian izango den esperientziarako. Eta bidaia horrek gure bizitzan izango duen garrantzia kontuan hartuta, arduraz jokatu behar dugu, eta batez ere kontuz ibili behar dugu maletan zer sartzen dugun eta zer ez. Maleta egiteko irizpide nagusia hauxe izango da: borondate ona, bere horretan, ez dela nahikoa.

Etapa horren balorazioa gerora egiten da; hau da, esperientzian bete-betean murgilduta gaudenean, atzera egiteko eta patxadaz gozatzeko berandu denean. Bide horre-

tara bultzatzen gaituzten motibazioak argitzeko garaia da, hartzen ari garen erabakiaren gainean pentsatzeko eta hausnartzeko tenorea. Maleta prestatzeko garaia da. Ez zer arropa, zer musika, zer liburu, etab. eramango dugun pentsatzeko, baizik eta konturatzeko zer tresna izango ditugun ezinbesteko eta lagungarri harrerako herrialdeko bizipenek gure baitan eta kanpoan eragingo dituzten aldaketa gehienak ulertzeko, bizitzeko eta barneratzeko. Eta horretarako, garai garrantzitsua da “aurreko” une hori: (1) prestatzeko garaia, kontzeptu teorikoak ikasteko eta lanabesak eta trebetasunak eskuratzeko denbora, horiek izango baitira gero gure gidari; eta (2) hausnartzeko eta erabakia hartzeko garaia.

Hauek dira bidaia prestatzeko aldi horretan aztertu beharreko zenbait alderdi eta dimentsio:

- **NI: nire pertsonaz eta aldaketaz jabetzea**

**Aldaketaz jabetzea**, konturatzeko boluntarioak aurrean izango duen egoera berriak *aldaketa kuantitatiboa* ekarriko duela, baliabide edo irtenbide materialen bidez (sendagaiak, material didaktikoa, hizkuntza hobeto ikastea...) aurre egiteko moduko aldaketa; baita *aldaketa kualitatibo* garrantzitsua ere, eta bigarren horri aurre egiteko, berriz, beharrezkoa da norbera ere aldatzea, itxuraldatze hori agerikoa egitea zaila izan arren. Eguneroko errealitatea aldatu egiten da eta, horren ondorioz, elkar eragiteko eta errealitatea hautemateko beste modu batzuk hartu behar dira.

Erabat bestelako errealitate batera egokitu ahal izateko ez da nahikoa aldatzeko borondatea, zerbait gehiago behar da. Egoera berrira egokituko bagara, gai izan behar dugu eboluzionatzeko eta, horretarako, ezinbestekoa da nork bere burua ondo ezagutzea, zer balio, indar eta gaitasun dituen jakitea. Hau da, jakin egin behar dugu zer egoeratan gauden, zer ahalmen eta muga ditugun, komunikatzeko eta gatazkak konpontzeko zer gaitasun daukagun, frustrazioarekiko eta zalantzarekiko zer tolerantzia, zer gaitasun sozial, bakardadea jasateko zer ahalmen dugun eta gure erresistentzia fisikoa zer-nolakoa den.

Norberaren ezagutza horrek, ordea, pertsona moduan dugun balioa errespetatzeko eta onartzeko sentimenduari loturik joan behar du. Zer garen jakitea, eta geure burua estimatzea eta onartzea, hori da modu bakarra bizi-esperientzia berriak ekar ditzakeen aldaketei aurre egiteko eta prestatuta egoteko.

**Norberaren kulturaz jabetzea.** Horren oinarrian dago, ezinbestean, gure kulturaren balioak azaltzea eta zehaztea, eta balio horiek pertsona moduan guregan zer eragin duten jakitea. Beste pertsonak ezagutzeko ezinbestekoa da, lehenbizi, geure burua ezagutzea eta izaki kulturalak garelara konturatzeko. Ohartzen garelarik gure balioak, jokabideak, jarrerak eta, azken finean, mundua ulertzeko daukagun ikus-

kera gure kulturan oinarritzen direla, errazagoa izango da beste kultura batzuekiko aldeak daudela ulertzea.

**Norberaren jarrereaz ohartzea.** Hau da, jabetzea zer jarrera hartu behar dugun bizi garen lekutik denbora luzez urrun egoteak eta desplazamenduak sor ditzakeen arazoei aurre egiteko, eta jabetzea zer jarrera hartzen dugun gure lana modu eraginkorragoan egiteko eta harrerako komunitatean integratzeko gaitasunak lortze aldera. Hauek dira topaketa erraztu dezaketzen zenbait jarrera: entzute aktiboa, enpatia, bitartekaritza, etab. Jarrera horiek ez dira eskuratzen eduki akademikoak ikasiz; aitzitik, praktikan jarritz, etengabe berrikusiz eta bizipenen bidez lortzen dira eta baitaratzen.

**Norberaren motibazioak garbi izatea**<sup>8</sup> funtsezkoa da gaizki-ulertuak saihesteko. Premisa hau hartu behar dugu abiapuntu: ez dago motibazio pururik; dinamikoak eta aldakorak dira motibazioak. Oinarri horretatik abiatuta, argi izan behar dugu nazioarteko boluntario izatea ez dela gure eguneroko egoeratik, gure aseezintasunetatik edota arazoetatik ihes egiteko bidea; izan ere, nahi edo nahi ez, denboratarte bat igarotzen denean, ustez atzean utzi ditugun arazo eta egoera horiek harra-patu egingo gaituzte.

Harrerako herrialdeari eta tokiari buruz gehiago edo gutxiago **zer itxaropen dugun ohartzea**. Guztiok dugu Hegoaldeari eta pobreziari buruzko irudi bat osatua (aurreiritziak eta estereotipoak); askotan, oinarri erromantikoa du irudi horrek. Saihestezina da itxaropenak eta aurreikuspenak sortzea eta iruditeria eraikitzea, baina komeni da horiei lur hartzen laguntzea, errealitateak berak lurreratze behartua eragin baino lehen.

**Kulturen talka**<sup>9</sup> eragin dezaketzen iturri nagusiak -hau da, kulturen arteko aldeak-lantzea ere garrantzitsua da etapa horretan: genero-rolak, denboraren kontzeptua, komunikaziorako moldeak, etab.

- **ZU: testuinguru orokorraren berri jakitea**

Esperientziaren atariko fase honetan, komenigarria da ezaguera teoriko batzuk eskuratzea, boluntarioak zenbait irizpide, aztarna eta jarraibide beregana ditzan Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desoreka sortzen duen egiturazko arazoa hobeto ulertu ahal izateko.

---

<sup>8</sup> Motibazioak sakonago jorratzen dira ALBOAN GKEa bilduma honetan: Boluntariotzarako motibazioak gaur egun (zk. 25).

<sup>9</sup> Kulturartekotasunaren gaia sakonago jorratzen da ALBOAN GKE bilduma honetan: Kulturartekotasuna, multikulturalismoa, boluntarioentzako erronkak (zk. 27).

Desoreka horien arrazoiak zein diren, garapenaren kontzeptua<sup>10</sup> eta horren ondorioak, garapenerako lankidetzaren mundua, eta abar hurbilagotik ezagutzeko uea izango da. Eduki horien guztien bidez gaur egun munduaren dinamika zer-nolako den ulertzeko oinarri globala eskuratu ahal izango du boluntarioak, era horretara bere tokiko jarduna kokatzeko (tokian jardun, global pentsatu).

Azkenik, harrera egingo dion herrialdeari buruzko ahalik eta ezaguera gehien eskuratu beharko luke boluntarioak, zer testuingurutan jardungo duen eta zer-nolako erakundeetan lan egingo duen hobeto ulertzeko, eta, era horretara, egitasmoaren filosofia, ideiak, kultura, eta abar baitaratzeko eta bete beharreko eginkizunaz eta lanaz jabetzeko. Azken batean, boluntarioaren itxaropenak hango lanaren errealtatearekin bat egiteko. Aldi berean, interesgarria da programa garatzeko ezinbestekotzat jotzen diren zenbait alderdi teknikotan boluntarioak prestatzea, kontuan izanda betiere han topatuko duten egoera eta beren buruan egindako irudia ez di-rela berdinak izango.

- **TOPAKETA: etika eta balioak**

Aurrez aipatutako guztiak helburu bat du: topaketa prestatzea. Justiziaren eta elkartasunaren balioetan oinarritutako etikak hezurmamitu behar du topaketa hori, eta, gisa berean, balio horiek gidatu behar dute boluntarioen jarduna.

Garrantzitsua da onartzea talkak gerta daitezkeela kultura baten eta bestearen balio tradizionalen artean. Hori dela eta, egokiera ona da (1) gure kulturari loturikoa zer den eta gizakiak berezkoa zer duen bereizteko; (2) kulturalki bereganatutakoa ezbaian jartzeko; eta (3) desikastea erabaki dudana eta aurkitu, estimatu eta ikastea erabaki dudana modu kontzientean hautatzeko eta baitaratzeko.

## Bitartean

*Esperientziaren bidez bizitakoak, horrek baino ez gaitu aldatzen; esperientziak irakasten digu eta aldatzen gaitu.*

*José Luis Ferrer sj*

Lur hartu, aireportutik atera eta denboraldi batez hartuko gaituen herrialdearekin parez pare topo egiten dugunean hasten da “bitartea”; orduan hasten gara jabetzen benetan zer ondorio eta inplikazio izango dituen hartu dugun erabakiak.

---

<sup>10</sup> Giza garapenaren eta boluntarioen gaia sakonago jorratzen da ALBOAN GKE bilduma honetan: Nazioarteko boluntariotza, garapenari alternatibak sortzen (zk. 26).

Maleta bete baliabide eta tresna iritsiko gara, baina egunez eguneko bizimoduak erakutsiko digu baliabide horiek egokiak diren edo aldatu egin behar ditugun. “Aurretik” izandako fasean egindako lana baliagarria izan den edo ez den nahikoa izan.

“Bitarte” denbora horren bizipena hainbat faktorek baldintzatzen dute: egonaldia-iraupenak; taldean, bakarrik edo bikotean joateak... Iraupen luzeko egonaldietan antzematen dira argien harrerako herrialdera eta kulturara egokitzeko prozesuan bizi ohi diren uneak.

Lau une nabarmen bereiz daitezke, boluntarioek beren esperientzian oinarrituta aipatutako lau memento. Lau hauek:

1. Lehen unean emozioak gailentzen dira, eta pertsona tokira eta egoerara ko-  
katzen ahalegintzen da. **Eztei-bidaia** esaten zaio lehen une horri. Aldi horre-  
tan, pertsonak normalean emozio positiboak ditu: itxaropena, zirrara, bidaia-  
ren lilura eta topaketa. Nolanahi dela ere, zenbait pertsonak galera baten  
talka afektiboa sumatzen du lehen une horretan.

Aldi horretan gerta daitezke errealitatetik ihes egiteko mekanismoak, batez  
ere hasieran: esaterako, behar baino lo gehiago egitea edo lanari bete-bete-  
an ekitea atsedendia bilatu eta zaindu gabe, harik eta berandu izan eta  
gorputzak nekea sumatzen duen arte.

“Denboraren sindromea” eta “aktibismoarena” ere jasaten dute bolunta-  
rioek; izan ere, harrerako erakundeetara iristen direlarik, jatorrizko herrialde-  
etan bizi ziren erritmora bizitzen saiatzen dira. Gainera, etengabeko estresa  
eta GKE-etako lan-erritmoa proiektuetan eta boluntarioengan islatzen da. No-  
lanahi dela ere, boluntarioak bizitzera doazen prozesuak denbora, pazientzia,  
irekitzea, entzutea eta eramaten uzteko gaitasun handia eskatzen du.

2. Bigarren uneari **kultura-talka** deritzo. Aldi horretan krisia nabarmenagoa da.  
Norberaren identitatea ezbaian jartzen hasten da une horretan pertsona, eta,  
horrez gainera, emozioen aldetik estres handia, tristura eta ez egokitzearen  
sentimendua jasaten du. Une horretan, boluntarioak irudipena du ez dela gai  
izaten ari kultura horretako dinamikara eta bizimolde berrira egokitzeko; area-  
go, kultura horretara moldatzeko gaitasunik ez duela lortuko ere pentsatzen du.
3. Hirugarren uneari **berrirori integraztea** esaten zaio. Egonaldiaren seigarren hi-  
labetetik urtebetara bitartean gertatu ohi da. Une horretan, kultura berri ho-

rretan eroso sentitzen hasten da pertsona, eta kultura horren zati bat barneratzen ere bai.

4. Laugarren unean, **osatzea** dator; hau da, boluntarioak bestelako identitate bat sendotzen du, harrerako herrialdeko kulturaren eta berearen alderdiak bilduz. Giro berrian bakean eta zoriontsu sentitzen da, eta ez du etxera itzultzeko gogorik. Independenten izateko nahia sortzen da orduan, laguntza eta ikuskatze gehiago ez jasotzeko eta bere kabuz ikasten jarraitzeko gogoia.

Pertsona guztiek ez dituzte lau une horiek modu berean bizitzen, ez eta intentsitate eta iraupen berarekin ere. Tokian egoteari egiteari baino arreta handiagoa jartzea lagungarri izan daiteke, batez ere hasierako uneetan, bertako kulturara hurbiltzeko unean, nahiz eta boluntarioak, zenbaitetan, denbora alferrik galtzen ari den sentipena izan. Aldi berean, bi irudi oso garrantzitsu daude prozesu horretan guztian; une bakoitza modurik positiboenean eta eraikitzaileenean bizitzen lagundu dezaketen bi irudi. Hauek dira:

#### **a. Erreferentziako pertsona**

Harreraz arduratuko den pertsona da, harrera-elkarteak izendatua. Herrialdera ongiatorria egiteko eta tokian ezartzen laguntzeko ardura izango du pertsona horrek. Erakundearen eta komunitatearen sartuko du boluntarioa; erakundearen historia azalduko dio, protagonistak aurkeztuko dizkio, eta, askotan, hango arazo, erabilera eta ohituren berri jakiteko itzultzaile lanak egingo dizkio.

#### **b. Bidelaguna<sup>11</sup>**

Harrera-elkarteko norbait izan daiteke, edo han bertan ezagutu eta laguntzeko prest dagoen kanpoko norbait; izan ere, boluntarioak bide luzea du aurrean eta laguntza behar du biziko duen guztia ulertzeko, eguneroko jardunean desegingo diren eskemak berregiteko eta esperientzia modu positiboan bizitzen lagunduko dioten gakoak eskuratzeko.

Zenbait boluntarioek ez dute bidelagun horren beharrik, eta lagun-taldearekin edo erreferentziako taldearekin egiten dute segimendua; beste zenbait boluntario, berriz, ezagutzen doazen pertsonen artean hasten dira bilatzen bidelaguna.

---

<sup>11</sup> Bidelagunaren gaia sakonago jorratzen da ALBOAN GKEa bilduma honetan: Bide-laguntza nazioarteko boluntarioria esperientzietan (zk. 29).



Batzuetan, lagungarri gertatzen da bidelagun hori boluntarioaren kultura edo herrialde beretik etorritakoa eta aurrez integrazio-prozesua arrakastaz gauditutakoa izatea; izan ere, bidelagun horiek baliabide gehiago dituzte laguntzeko, ulertzeko eta zailtasunak nola gauditutako erakusteko.

Pertsona horrek gai izan beharko luke boluntarioaren ondoan egoteko, boluntarioari bere burua eta bere kultura aurkitzeko eta ideiak argitzeko prozesuan laguntzeko; bere nahiak eta itxaropenak bereizten eta objektibo bihurtzen laguntzeko. Etapa horretan, jagole hori aholkulari bihurtzen da; izan ere, antzeko esperientzia bizi ondoren, gai da konfiantza giroa sortzeko, entzuteko eta galdera egokiak egiteko, irakurgaiak etorri berriaren esku jartzeko, gogoetak pizteko, ondorioak aztertzeko eta ateratzeko, lor daitezkeen helburuak antolatzeko eta zehazteko, lortutako helburuak ebaluatzeko eta nabarmentzeko.

Topaketa hori emozioen aldetik esperientzia izugarri garrantzitsua da bi-bientzat; izan ere, lagungarri da, alde batetik, boluntarioak jasaten duen gehiegizko hertsura murrizteko, eta bestetik, bidelagunak egindako edozein interpretazio edo erantzunen aurrean ager dezakeen jarrera uzkurra murrizteko. Horrek guztiak, aldi berean, egoerara moldatzen lagunduko dio boluntarioari. Pertsonen arteko topaketa horrek lokarri osasuntsuak eta sendoak ditu, hori du bereizgarri nagusia. Nolanahi ere, topaketa hori arrakastatsua izango bada, ezinbestekoa izango da besteak beste, boluntarioaren erritmoa errespetatzea.

Bidaltze-elkarteak ere egin dezake bidelagunaren lana, boluntarioa bizitzen ari denaren berri jakinez, baina aintzat hartu behar dira laguntza horren mugak: distantzia eta egunez egunekoa ez partekatzea, esaterako. Herrialde berean dauden boluntarioen topaketak antolatzea ere oso eraginkorra izan daiteke bide-laguntza egite prozesu horretan, era horretara aukera izango baitute bizipenak, zailtasunak eta aurkikuntzak partekatzeko.

Bidelagun batek, ezin konta ahala boluntarioari bide-laguntza egin ondoren, honako jarraibide hauek aipatu zituen, bere esperientziatik abiatuta:

*Boluntarioak bere pribatutasunerako eta autonomiarako eskubidea izan behar du, baina, aldi berean, elkarbizitzarako eta taldeko bizitzara eta lekuko ohituretara egokitzeko gaitasuna izan behar du. Bi alderdi horien arteko oreka lortu behar du boluntarioak.*

*Hala, boluntarioaren bizitza-estiloa (etxebizitza, arropak, tresnak, bidaiak, gastuak...) "luxurik gabekoa" eta solidarioa izatea baloratzen da. Onartu behar da*

*boluntario inkulturatuena "bizitza-estiloa" bera adierazgarria dela, eraldaketa eta prestakuntza pertsonalerako balio duela besteekin dituen harremanak hobetzeko, sistema kontsumista kritikatzeko modu bat dela, eta bizitzatik komunikatzeko eta hitz egiteko nahia adierazten duela.*

*Denbora librean, berriz, herritarrekin dituen harremanetan, irekitasuna, jakinmina, gardentasuna eta kulturen arteko trukerako pazientzia izan behar ditu boluntarioak. Boluntarioen etxeek ez dute bihurtu behar "espainiarren udaleku"; boluntarioek jator jokatu behar dute, ateak ireki eta beren kultura besteekin partekatu behar dute harreman anaikor eta horizontalen bidez.*

*Bestalde, oreka bilatu behar da: ona da "erroak botatzea", bihotz eta arimaz aritzea, sareak edo kontaktuak lortzeko harreman onak egitea; baina, aldi berean, distantzia bat gorde behar da, eta boluntarioen "behin-behinekotasunaz" ohartu.*

*Esperientzia horri zukua atera behar zaio, agian, bizitzan parekorik izango ez delako, baina "etxera itzuli" behar dela ere jakin behar da, boluntario gehienek egingo duten bezala. Boluntarioari beti geratuko zaio bizitakoaren aztarna, eta, aldi berean, beste leku batean bizitzeko askatasuna irabaziko du. "Inkultu-razio" horren eraginez, zailagoa egiten da etxera itzultzea, boluntario-lanari ekitea baino.*

*Mendekotasuna sortuko duten familiako konpromisoak edo konpromiso afektiboak (ekonomikoak, familiakoak...) ez hartzea gomendatzen da (haurrak besoe-takotzat hartzea, laguntza ekonomikoak ematea...), sen onak eskatzen duen ka-suetan salbu.*

*Arlo afektiboari dagokionez, hau hartu behar da kontuan:*

- *Heldutasun afektiboa bilatu behar da: alde batera utzi behar dira haurren sentimentalismoak, jarrera dramatiko edo depresiboak, egozentrismoak eta protagonismoak eta, aldi berean, ez da hartu behar jarrera bihozgabe eta arrazionalistatik pobreen egoeraren aurrean.*
- *Ohiturak, kortesiazko formak, harremanak, antolaketa-egiturak (batzuetan autoritarioak) errespetatu behar dira. Horien aurrean kritikoa izan behar da, baina, aldi berean, ulerkorra eta tolerantia.*
- *Kontuz ibili behar da liberegi ez jokatzeko (drogen kontsumoan, bizitza sexu-alean, zaletasunetan), tokiko ohituren arabera eskandalagarriak izan bai-taitezke.*

- *Krisi- eta bakardade-uneak bizitzeko ere prest egon behar da (bikotea, familia, kultura...).*
- *Boluntariotzak irauten duen bitartean, bikote-harreman serioak sortzea ere saihestu behar da. Ohikoak izaten dira inkulturazio handiaren ondorioz edo gehiegi engaiatzeko tentazioaren ondorioz. Izan ere, testuinguru berezia sortzen da horretarako: boluntario gaztea, etxetik kanpo, etorkizuneko erabakiak hartzeko irekitasunarekin. Eta hori aukera bat da, baina, aldi berean, arriskua.*
- *Leku batzuetan, hainbat boluntarioren eta tokikoen arteko bikoteak sortu dira, eta “ezkontza-agentzien” itxura hartu dugu. Batetik, badirudi “pobreak gehiago maitatzeko” aukera ematen duela horrek, baina, bestetik, “gizartean gora egiteko eta atzerrian familia izateko” aukera sortzen du.*

*Boluntarioaren bizitza pribatuari buruzko beste bi alderdi daude: bizikidetzeta eta inkulturazioa.*

*Bizikidetzari dagokionez gardentasuna eta besteei (boluntarioak, bikoteak eta hurbileko pertsona inpartzialak) entzuteko gaitasuna beharrezkoa da.*

*Bestalde, garrantzitsua da boluntarioak Espainiako, atzerriko edo tokiko beste boluntario batzuekin komunitatean bizitzeko gaitasuna izatea, elkarrekin partekatatu behar baitituzte etxea, jana, bizitza, bainugelak eta erantzukizunak.*

*Hala, etxeko lanak egiteko, erantzukizun komunak hartzeko eta elkarbizitzarako jarrera ludikoak hartzeko gaitasuna izan behar du boluntarioak.*

*Eta tokiko pobreekin bizitzeari dagokionez, boluntarioak ahalik gehiena aprobe-txatu behar du egokiera, aukera paregabea baitu bizitzaren eta esperantzaren kulturarteko trukea egiteko. Gure kulturek gordetzen duten “espiritua” aurkitzea da funtsa.*

*Inkulturazioari dagokionez kulturarekiko erabateko atxikimendua edo erabateko mespretxua agertzen duten jarrerak saihestea gomendatzen da, truke pertsonal, sozial, kultural, politiko edo erlijioso horretan.*

*Gehiegizko inkulturazioa ez da gomendagarria –beste kultura, hizkuntza, arropa, ohiturak... kopiatu nahi izatea–, alegia, diferentziak ezabatzea, eta, egokitu beharrean, tokiko bihurtu nahi izatea. Kultura-nabarmenkeriaren itxura har dezake.*

*Halaber, kulturaren kanpoko itxuraren atzean, giza harreman bidegabeak –giza eskubideak, emakumeak, pobreak edo baztertuak gehiago edo gutxiago errespetatzen dituztenak– ikusten jakin behar da. Harreman horiek deskribatzen eta hitz egiten jakin behar da, guk geuk aldaketak egiteko asmorik izan gabe.*

Santiago Vallebuona<sup>12</sup>

## Ondoren

*Esperientzia horrek bizitza aldatzen dizu  
eta pertsona moduan zure buruarekiko  
hainbat zalantza sorrarazten dizkizu.  
Honela dio AEBko boluntario jesuiten lelo batek:  
“bizitza osorako lur jota”.*

*Ignacio Pichardo*

“Ondorena” mugarik gabeko epea da denbora aldetik; noiz hasten den jakiten da, baina noiz bukatuko den ez. Eta itzulerako talka nola edo hala leuntzeko, komeni da “bitarteko” garaia bukatu baino lehen prestatzen hastea “ondorena”, bueltatzean zer egin nahiko genukeen galderari erantzunez eta gure herrialdearekin eta gureekin berriro elkartzeko prestatuz. Era berean, garrantzitsua da agurra ere zaintzea, eta horretarako, lagungarria da garaiz hastea. Lagungarria, behin jatorrizko herrialdera itzulita, han hainbat gauza egiteko utzi ditugula ez sentitzeko.

Garrantzitsua da boluntarioei jakinaraztea zer-nola eragin diezaiekeen itzulerak, batez ere emozioen aldetik. Jatorrizko herrialdean erreferentziazko taldeekin (lagunekin, familiekin, ikaskideekin, lankideekin, etab.) izan ohi dituzten bizipenekin alderatuta, oso bestelako esperientzia bizitzeko aukera izan dute. Gerta liteke beren inguruko hainbat lagunek ez ulertzea itzuli den pertsona horrek bizi izan dituen esperientziak eta aldaketak.

Boluntariotzaren ondorengo taldeak gune egokiak dira boluntarioek beren esperientziei eta ikasketa-prozesuei buruz hitz egin dezaten. Norberaren bizipenak azaltzea eta antzeko esperientziak izan dituzten pertsonekin partekatzea, harre-ra-gizartetik jatorrizkora igarotzeko modu bat da. Agurreko samina, bakardadea

---

<sup>12</sup> ALBOAN (2007). *Nazioarteko boluntariotzaren erronkak gaur egun, Hegoaldetik ikusita*. Bilbo. Esperientziak bilduma 4

eta ezin ulertua leundu eta arindu egin daitezke antzeko egoerak bizi izan eta antzeko errealitatea partekatzen duten pertsonen eskutik. Gune horiek lagungarri izan daitezke boluntarioentzat, beren esperientziei eta ikasketa-prozesuei buruz hitz egin dezaten.

Hurrena atzerrira abiatuko den taldearekin ere parteka dezakete beren esperientzia, edo herritarren artean kulturen arteko elkarrizketaren garrantziari buruz sensibilizazioa zabaltzeko balia dezakete han ikasitakoa. Besteei transmitituko dieten lekukotza prestatzeko lan horretan, bizitako esperientzia berregiten dute boluntarioek, eta hitzez adierazten dituzte gainerakoan kanporatuko ez lituzketen barneko emozio eta bizipen asko. Alde horretatik, beraz, lagungarria da lekukotza hori prestatzea.

“Ondorena” deritzon une horretan, erronka da boluntarioak bideratzea, aldaketarako eragile bihur daitezen Iparra eta Hegoaren arteko harremanen egiturazko bidegabekeriari aurre egiteko borrokan; era horretara lortuko da proiektuen helburuek sensibilizazio-fasea gaingitzea eta gerora begira boluntario horien konpromisoa biltzea.



# Ondorio modura

## NAZIOARTEKO BOLUNTARIOTZAREN ONURAK ETA ARRISKUAK

Nazioarteko boluntariotzaren aldeko konpromisoa eta erronka onartzen dutelarik, prozesu batean sartzen dira boluntarioak, eta prozesu horrek onura ugari eta garrantzitsuak sortzen ditu hiru noranzkotan: boluntarioarentzat berarentzat, hartzen duen komunitatearentzat eta jatorrizko gizartearentzat, itzultzen denean. Nazioarteko boluntarioen jarduna oso lagungarria da giza garapenerako, baina oso kontuan izan behar dira jardun horren ezaugarri bereziak.

### Onurak eta indarrak

Boluntarioen jardunean ez dago interes ekonomikorik tartean, baina, zalantzarik gabe, esku hartze horrek onura ugari ekartzen dizkio boluntarioari berari. Hori da boluntario izatearen bereizgarrietako bat. Alde batetik, mugikortasuna eta bidaia funtsezkoak dira sentsibilizaziorako, beste kultura batzuen berri izateko eta jarrera irekiak sortzeko. Bestetik, esperientzia lagungarri gerta dakioke nazioarteko boluntarioari lan-munduan sartzeko; izan ere, beren trebakuntza eta prestakuntza profesionala hobetze aldera gaitasunak lantzeko aukera eskaintzen dute esperientzia horiek.

Boluntarioen esperientzia hezkuntza-prozesu ez formaltzat hartzen da, pertsona moduan hazten eta bestelako bizitza-estilo bat eratzen laguntzen duen heinean. Esperientzian garatutako balio eta jarreraren bidez, mundua ulertzeko beste ikuskerak bat dago bizitza-estilo horren oinarrian.

Boluntariotza-mota jakin baten alde egin da apustu eta, gizarte hartzaileari dagokionez, begien bistakoa da boluntariotza horrek onura batzuk ekarri behar dituela.

Boluntario moduan jarduteko beste herrialde batera jotzen duten pertsonak aukera izango dute egokitutako erakundeetan hainbat nozio, balio eta ideia erakusteko, komunitate hartzaileak dituen nozio, ideia eta balioen aldean bestelakoak. Nazioarteko boluntario izatea kultura desberdinetako pertsonak elkarrengana hurbiltzeko modu bat da. Horri esker, pertsona horiek aukera dute kulturarteko trukearen bidez elkar aberasteko, bai eta elkarrekin lan egiteko ere, desoreka eta bidegabekeria soziala eragiten duten baldintzak aldatzeko ahalegin horretan.

### Arriskuak eta eragozpenak

Boluntarioen motibazioak ugari eta era askotakoak dira. Zer mekanismok bultzatu duen pertsona hori nazioarteko boluntariotza-esperientzia batean parte hartzera, zerk eraman duen horretara jakitea, argigarria izan daiteke boluntarioak esperientziari nola aurre egingo dion antzemateko.

Boluntarioek modu askean onartzen dute beren egitekoa, ordainsari ekonomikorik gabe; baina hori horrela izanik ere, boluntarioena ez da lan-esku merkea eta boluntarioek ez dute, inolaz ere, harrera-herrialdeko pertsonen lana ordezkatu behar.

Bestalde, pertsona horiek Hegoaldeko herrialdeetara bultzatzen dituen elkartasunak badu bere kostu ekonomikoa, eta komeni da hori esatea ere. Nazioarteko boluntario batek eragiten duen gastua eta diru-kopurua handiagoa da herrialdeko bertako boluntario batek eragiten duena baino. Bakoitzak bere ekarpena egingo du eta goera bakoitzean aztertu beharko dira ekarpen horiek.

Boluntarioen nazioarteko dimentsio horrek zenbait ezaugarri berezi ditu, oso aintzat izan beharrekoak boluntariotza bestelako formulekin ez nahasteko; izan ere, nazioarteko boluntario izatea ez da “abentura-turismoa”, hizkuntzak ikasteko bidaia, edota norberak dituen arazoetatik ihes egiteko bidea.

Esku-hartze motari edo izaerari dagokionez, nazioarteko lankidetzak “arretaren” eta “laguntzaren” ikuspegitik interpretatu izan da betidanik. Laguntzea, sorostea, izan da esku-hartze horren joera nagusia eta hortik etorri da “herrialde haie-tako arazoen konponbidea” kanpotik etorri behar duelako ustea. Leonardo Boff-en hitzetan<sup>13</sup>: *Laguntzera badatoz, ez dira baliagarri, hobe dauden lekuan geratzen badira. Elkarren ezaguerak trukatzera eta sendotzera badatoz, orduan, ongietorriak bitez!* Boluntarioek gai izan behar dute Hegoaldeko herrialdeei bu-

---

<sup>13</sup> FERRARI, Sergio. (1998). *Del Norte al Sur: claves para este viaje*. Envío, 200 zk. UCA Nikaragua.



ruz hedatutako aurreiritziak gainditzeko, garrantzitsua da hori; izan ere, aurreiritzi horiek mendekotasuna sortzen eta betikotzen dute eta eragotzi egiten dituzte komunitateen baitan sortutako garapen-prozesuak. Lan zaila da eta, horren ondorioz, ezinbestekoa da aintzat hartzea zer baldintzatan jarduten duten boluntarioek, eragin negatiboak sorraraz ditzaketen gorabeherak saihesteko.

Bada beste arrisku bat aintzat hartu beharrekoa eta nazioarteko boluntarioen ekarpena mugatu dezakeena: boluntarioen beren ikuspegi etnozentrikoa, hain zuzen. Desberdintasuna gainditu beharreko defizita delako ustean islatzen da ikuspegi hori eta, ikuskera hori gaindituko bada, beren kulturaren parametroetatik balioetsi eta interpretatu behar dute besteen kultura.

Ikuspegi etnozentriko horren kontrakoa da pluralismoa eta kultura-aniztasuna. “Bestearengana” irekitzeko jarrera garatzen laguntzen du kulturen pluraltasun horrek eta desberdintasuna faktore positibotzat hartzen du, elkarrizketa aberastu dezakeen faktoretzat. Boluntarioek ibilbide bat, oinarri bat dute kultura alde-tik, eta jakintza horretatik ikusten eta ulertzen dute mundua. “Bizkar-zorro” hori gainetik kentzea ez da ez egokia ezta etikoa ere; jatorrizko kulturaren eskuratutako elementuak, arauak eta balioak gutxiatea litzateke. Horrek ez du esan nahi boluntarioek “azpikulturatzat” hartu behar dituztenik beste kulturak; izan ere, horrelakorik eginez gero, pertsonen duintasuna eta eskubideak urratuko litzukete.

Nazioarteko boluntariotzak ateak zabaltzen dizkio kulturen arteko trukeari eta parte hartzeko sareak sustatzen ditu, mundu gero eta globalago honetan herritar-rrak garatzeko sare funtsezkoak.

Azkenik, nazioarteko boluntarioen jardun egokirako arriskutsuak izan daitezkeen hainbat egoera aipatzen ditu Aranguren (2003)<sup>14</sup>; hala nola, proiektuari garrantzi handiagoa ematea komunitatearen prozesuari baino, elkarrizketak “gailur-rean” egitea interes gehien duten taldeak ahaztuta eta haiei parte hartzeko aukerarik eman gabe, mendekotasuna sustatzea, eta despolitizazioa areagotzea.

Hori dela eta, hauxe da nazioarteko boluntariotzari buruzko gure definizioa: gizartearen aldatzeko lanean diharduen mugimendua da boluntariotza, egitura bidezkoagoak eta berdinzaleagoak sortzeko ezaguerak eta bizipenak partekatzen dituzten pertsonen elkarrekin egindako lanaren eta parte-hartzearen bidez hezurramitutako mugimendua.

---

<sup>14</sup> ARANGUREN, G. (2003). *Boluntarioen erronkak Iparraldetik*. ALBOANek antolatutako *Boluntarioak globalizazio garaian* [www.alboan.org](http://www.alboan.org)



# Praktikan jartzeko

## DINAMIKAK

### Boluntariotza zehazten

**Mota:** Taldekoa.

**Iraupena:** 20 minutu.

**Helburua:** Boluntariotzaren oinarritzko ezaugarriak adostea.

**Garapena:**

Taldetan banatuta, boluntariotzari buruzko definizio bat emango zaie, eta horretan oinarrituta beste definizio bat landu beharko dute, taldekide bakoitzaren iritzia kontuan hartuta.

Taldeei banatuko zaizkien aukerako definizioak:

- Klase ertainaren “elkartasuna” da boluntariotza: indibidualismo errukitsua.
- Elkartasuna balio oso kotizatua da klase ertainarentzat, baina bere erlijioa (“ongi sentitu” beharra) eta indibidualismoa dela medio, klase horrek arreta handiagoa jartzen dio bere mundu txikiari gizartearen eta erakundeen bideari baino. Horren eraginez, klase horrek oso modu berezian bizi du elkartasuna: boluntariotzari garrantzi handiagoa ematen diote herritar soil izateari baino, hurbilekoa gehiago azpimarratzen dute egiturazkoa baino, errukia lehenesten dute justiziaren aurretik. Klase ertainaren elkartasunak gehiago du indibidualismo errukitsutik egiazko herritartasun solidariotik baino.
- Boluntario izatea da egoera ahulean dauden izakien aurrean arduratsu jokatzea, eta eskubide eta betebeharrak erabiltzea, beretzat ez ezik baita ho-

riek onartuta ez dituztenentzat ere; boluntario izateak esan nahi du denok bizitzeko moduko mundu bat eraikitzea, indartsuak eta beren buruaren jabe direnak, eta egoera ahulean eta babesik gabe daudenak, guztiak bizitzeko moduko mundua. Era horretara, herritarrek asebate egiten dute beren izatea elkartasuna gauzatzeko ahaleginean.

- Pertsona batek marko formalean eta denbora-epe jakinean agertutako konpromiso altruista; pertsona horrek bere denbora edota gaitasunak modu askean eta doan eskaintzea. Boluntarioak bere jarduera egin ahal izateko zenbait baldintza bete behar dira praktikan; zehazki, biziraupenerako eta garraiorako dituen gastuak ordaindu behar dira, eta babes soziala eman behar zaio.
- Gizarte-boluntariotza arduratsua. Boluntario izatea bizitzeko jarrera bat da, ez soilik miseriaren irudiak inarrosi eta sorrarazitako jardun errukitsua. Boluntarioak ez du jarduten pobrezia arintzeko, baizik eta desagerrarazteko.

Ondoren definizioak komunean jartzen dituzte eta propio bat adosten saiatuko dira.

### Boluntariotzari buruzko kiniela

**Mota:** Taldekoa.

**Iraupena:** 45 minutu.

**Helburua:** Boluntario izateari buruz aurrez dituzten ideiak hautematea. Iritzi jakin bati buruz jarrera argia hartzea. Norberaren iritzia eta ustea defendatzea. Beste pertsonen iritziekiko eta elkarrizketarako jarrera irekia agertzea.

**Garapena:**

Boluntario izateari eta parte-hartze sozialari buruzko kiniela bat osatzea proposatuko zaie, eta horretarako, kinielako esaldi hauetako bakoitzaren alde edo kontra dauden esateko eskatuko zaie:

1. Ados
  2. Ez ados
- X. Ez dago jarrera argirik horren gainean

Garrantzitsua da ohartaraztea, kontrako edo aldeko jarrera hartzeko zalantza handiak daudenean, orduan baino ez dutela erabili behar X aukera. Adostasuna (1) edo desadostasuna (2) azaltzea da interesgarria.

KINIELA	1	X	2
1 Pertsona guztiok dugu gure bizitzako uneren batean boluntario izateko betebeharra.			
2 Boluntario izateko, bizimolde konprometitua eta koherentea izan behar da.			
3 Boluntariotza-esperientziak dira modurik onena urruneko eta hurbileko beste mundu batzuk deskubritzeko.			
4 Justizia behar da eta ez elkartasuna.			
5 Pertsona bakar batek ezin du ezer aldatu; pertsona guztion artean, bai, lor dezakegu.			
6 Gizarte-erakundeek, gaur egun, ezin dute erabaki politikoetan eragin.			
7 Pertsona batek egiten ez duen ekarpena ezingo du beste inork egin.			
8 Pertsona askok ez dute parte hartzen ez dakitelako nola egin.			
9 Parte hartzen dugularik, errealitatea aldatzen dugu beti.			
10 Ekintza bat tokian bertan oso txikia izan arren, mundu osoan nabarituriko dira haren ondorioak.			

Emaitzak bateratzeko bi prozedura erabil daitezke:

1. Taldeka biltzea eta kiniela bakoitzaren emaitzei buruz hitz egitea, esaldi bakoitzak iradokitako jarrerari buruz eztabaidatuz.
2. *Balioen barometroa* deritzon teknika ezartzea. “X” adierazten duen marra bat marraztuko da lurrean. Marraren ezkerreko aldean “1”arekin zenbatutako iritziak adieraziko dira, eta eskuineko aldean “2”arekin zenbatutakoak. Dinamizatzaileak ahots gora irakurriko ditu esaldiak. Kinielan erantzun duenaren arabera, pertsona bakoitza marraren alde batean edo bestean jarriko da. Behin guztiek beren lekua hartu dutenean, eztabaida bultzatuko da bi aldeetan dauden pertsonen artean. Prozedura bera errepikatuko da esaldi guztien inguruan eztabaidatu arte.

## Nire boluntariotzaren ibilbidea

**Mota:** Banakakoa edota taldekoa.

**Iraupena:** Ordubete.

**Helburua:** Boluntario izateko esperientziaren inguruan dituzten helburu eta itxaropenei buruz gogoeta egitea.

**Materiala:** Egunkariak eta aldizkariak, guraizeak, zinta itsaskorra.

**Garapena:**

Partaideei eskatuko zaie imajinatzeko nolakoa izango den beren esperientzia boluntario moduan, une horretan hasi eta etorkizunean amaituko dena. Bizitzera doazen esperientzian zer aurkitu nahiko luketen bilatu beharko dute eskainiko zaien materialaren artean, eta ondoren moztu (aipatutako oinarrizko materialaz gain, bururatu eta eskura duten beste edozer ere erabili ahal izango dute).

Horretarako, aretoan gogokoen duten lekuan jartzeko eskatuko zaie. Behin kokatuta, adieraziko zaie leku horretan hasten dela beren bidaia eta hor itsatsi behar dutela une horretan nola dauden egokien azaltzen duen hitza, esaldia edo irudia. Une horretatik aurrera, nahierara mugitu ahal izango dute aretoan, beren “bidea” edo bidaia imajinatu duten moduan eginez, etapaz etapa, une bakoitza irudikatuko duten hitzak, irudiak eta abarrak jarritz.

Behin bukatuta, parte hartzaileek bateratu egingo dituzte beren esperientziak, eta gainerako taldekideei zer ibilbide egin duten azalduko diete. Azkenik, aukera eman dakieke ibilbideetan izan diren antzekotasunei buruz hitz egiteko edota sortu diren gai garrantzitsuenei buruz sakontzeko.

**Iradorkizuna:**

Beldurrak eta zalantzak lantzeko ere balia daiteke dinamika.

## Nazioarteko boluntariotzaren dekalogoia

**Mota:** Taldekoa edo banakakoa.

**Iraupena:** 45 minutu.

**Helburua:** Boluntarioak izan beharko lituzkeen jarrerai buruz gogoeta egitea eta saihestu beharreko arriskuak hautematea.

**Garapena:**

Lau edo bost laguneko taldetan banatuta, orri zuri bat emango zaie, eta boluntario idealaren dekalogoia osa dezaten eskatuko. Hegoaldean topaketa egoki baterako erabilgarri izango diren hamar jarraibide edo premisa bildu beharko dituzte dekalogo horretan.

Behin talde bakoitzak bere dekalogoia landu duenean, talde handian bateratzeko eskatuko zaie, eta talde osoarentzat baliagarri izango den dekalogo bakar bat lantzeko, talde txikietan jasotako premisak oinarritzat hartuta.

## Esperientzian zehar gerta daitezkeen egoerei buruzko dinamika

**Mota:** Taldekoa.

**Iraupena:** Ordubete.

**Helburua:** Esperientzian zehar gerta daitezkeen egoerei buruz gogoeta egitea. Talde-lanerako trebetasunak (komunikazioa eta entzutea, adostasuna lortzea...) garatzea.

**Garapena:**

Partaideak bost taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzari esperientzian zehar gerta daitekeen egoera jakin baten balizkoa banatuko zaio. Taldeak aretoan antolatuko dira eta eman zaien kasua irakurritz hasiko dira. Denbora bat utziko da nork bere aldetik gogoeta egin dezan. Ondoren, ateratako ondorioak bateratu beharko dituzte gainerako taldekideekin, egoerari nola aurre egingo lioketen erabakitzeke. Tarte batean eztabaidatu ondoren, egoera horiei zer konponbide eman erabakitzen eta adosten saiatuko dira taldekideak.

Interesgarritzat joz gero, ondorioak talde handira eraman litezke, kasu guztiak eta erabakitako konponbideak guztiekin partekatzeke, eta hala, talde osoan eztabaida pizteke.

## Aukerak:

- **1. taldea**

“Azkenean iritsi zara zure jomugara. Oso talde bateratua aurkitu duzu, jende jatorra da, baina ez du bilerarik egiten lanaren berri emateko; informazioa modu informalean transmititzen da. Etorri berria zarenez, zaila egiten zaizu horrela lan egitea, eta ez duzu egun osoa taldekideen atzetik ibili nahi, zer gertatzen den jakiteko. Nola konponduko zenuke arazoa?”

- **2. taldea**

“Lankide zareten proiektuan, etxe berean bizi zarete boluntarioak. Zure ustez, harrigarria da eremu pobre batean bizitzea, inguruko errealtatea gordina izatea eta, hala ere, sukaldeko hozkailuan beti gutziaren bat egotea.

Nola egingo zenioke aurre egoerari? Boluntarioek zu iritsi baino lehen zituzten kontsumo-ohiturak aldatu behar direla proposatuko zenuke?”

- **3. taldea**

“Duela egun batzuetatik hona ohartu zara zurekin lan egiten duen eta bizi den boluntario batek hotz jokatzeko duela zurekin. Inoiz ez da oso komunikatiboa izan, baina badira hiru aste modu misteriosuan desagertzen dela elkarrekin zaudetenean. Egundak batean irribarre zabala duela agertu da, eta esan dizue haur bat adoptatzea erabaki duela, eta, proiektuan lanean aritzen den bitartean, haurra guztiokin batera biziko dela. Zer jarrera hartuko zenuke?”

- **4. taldea**

“Osasun-zentro batean ari zara lanean; ibilgailu bat duzue, eta beharra dagoenean, anbulantzia gisa erabiltzen duzue. Taldekideen artean, zuk bakarrik dakizu autoa gidatzen, eta asteburu batean lagun batzuek jai batera gonbidatu zaituzte hiriburura, eta joan egin nahi duzu. Autobusean joan zaitetzke, baina gogoratu duzu igandean oso bilera garrantzitsua duzuela, eta autobusean joaten bazara, ez zara garaiz iritsiko. Asteburuak libre izaten dituzue eta autoa buelta bat egiteko edo lekuak ikustera joateko erabiltzen duzue. Hori aintzat hartuta, eskatuko al zenuke autoa jaira joateko, larunbat arratsaldean irten eta igande goizean itzultzeko? Gehienak ados daude, baina bi pertsonak uste dute larrialdi bat gertatuko balitz zure jokabidea zuzentzea eta arduragabea izango litzatekeela. Hala ere, autoa hartuko al zenuke?”



## • 5. taldea

“Lan egiten duzun lurraldean, desberdintasun handiak daude lurren jabeen eta lurra lantzen duten nekazarien artean. Egun batean, lur-jabe handi batekin topo egin duzu eta, adeitasunez, zu eta gainerako boluntarioak gonbidatu zaituzte bere etxaldera bazkaltzera.

Zer egingo zenuke?

- a) Gonbidapena onartu duzu; herrian irudi txarra eman dezakezun arren, uga-zaba kontzientziazteko modu ona dela uste duzu.
- b) Gonbidapenari ezetz esaten diozu, lan handia duzula argudiatuz.
- c) Gonbidapena onartu duzu, eta lur-jabeari adierazi diozu nahiko zenukeela bere etxaldeko langileak ere gonbidatzea.
- d) Beste aukera batzuk...”.

### Iragarkia

**Mota:** Taldekoa.

**Denbora:** 45 minutu

**Helburua:** Boluntarioen jardunari buruz gogoeta egitea. Aztertutakoa sintetizatzea.

**Garapena:**

Taldekideei iragarki bat egiteko eskatuko zaie, herritarrak boluntario izatera gonbidatzeko; irrati, telebista, prentsa eta abarretan iragarkiek ohi duten be-rezko estiloa erabili beharko dute horretarako.



## BIDEO-FORUMA

Jarraian, zenbait pelikula proposatzen dira, taldean eztabaida sortzeko eta nazioarteko boluntariorzaren zenbait alderdiri buruz sakontzeko.

**Auzo gorriko haurrak. Born into brothels.** Kauffman, Ross; Briski, Zana, Madril: El País; Red Light Films, 2004.

83 min.

*Born into brothels* filmak dokumental onenaren Oscar saria irabazi zuen 2005ean. Zama Briski argazkilariak gauzatutako ekimenaren kronika da filma; Calcutako Auzo Gorriko prostituten seme-alabei aukera bat ematen ahalegindu zen Briski, eta argazki-kamera bat erabiltzen irakatsi zien horretarako. Hunkigarria eta zintzoa da dokumentala, eta sentimentalismoz biluztua; hartzaroaren erresistentzia eta artearen ahalmen berritzailea goresten du filmak.

**Cidade de Deus.** Meirelles, Fernando Madril: Público; Globo Films, 2007.

130 min.

Buscapék 11 urte ditu eta Cidade de Deusen bizi da, Río de Janeiroko auzo pobre batean. Lapurretak, borrokak eta poliziarekin eguneroko borrokak ohikoak dira auzoaren eguneroko bizimoduan, baina Buscapék nahiago du horietatik aparte ibili. Berak argazkilari izatea du amets. Dadinhok adin bera du eta berak ere oso argi du zer izan nahi duen: Río de Janeiroko kriminal entzute-tsuen bihurtzeko goranahia du. Denboraren joanean, bi-biek lortuko dute ametsak egia bihurtzea. Buscapé egunkari batean hasiko da lanean, eta Dadinho, Zé Pequeno bihurturik, Río de Janeiroko kokaina nakotrafikatzaile entzute-tsuen eta beldurgarriena izango da.

**Un franco, 14 pesetas.** Iglesias, Carlos Madril: Drive Cine, 2005.

102 min.

Espainia, 1960. Bi lagun, Martin eta Marcos, sorterrria utzi eta Suitzara abiatu dira lan bila. Espainian utzi dituzte familiak eta aurrerapenaren eta askatasunen Europara jo dute, bestelako bizitza bati ekiteko ametsetan. Han guztiz bestelako mentalitate bat aurkituko dute, eta hartara moldatu beste aukerarik ez dute izango. Herri kozkor industrial batean biziko dira eta hango fabrika batean jardungo dute mekaniko. Pilar, Martinen emaztea, haien seme Pablo, eta Marcosen neskalaguna, M<sup>a</sup> Carmen, iristearekin batera, bukatu egingo zaie gizon ezkongabeen bizimodua horrenbeste askatasuneko herrialde batean. Martinek eta Pilarrek lanean jarraituko dute buru-belarri, eta Pablo txikia eskolara joaten eta integratzen hasiko da. Martinen aita hiltzean, hausnartu dute bila joan ziren hura lortu dutela eta itzultzeko ordua dela. Ezustean, ordea, zailagoa izango da itzultzea Suitzara abiatzea izan zena baino.

**Qué tan lejos.** Hermida, Tania Madrid: Karma Films, 2006.

92 min.

Esperanzak, Espainiako turista batek, eta Tristezak, Ekuadorko ikasle batek, Cuencara bidean doazela ezagutuko dute elkar. Bakoitzak bere arrazoa du Ekuadorko hiri hura igurikatzeko. Bidean doazela, greba nazional batek itxita dauka errepidea eta, ondorioz, beste bide bati heltzea erabakiko dute, eta gutxienez hurrengo herrira eramango dituen norbait bilatzen ahaleginduko dira. Bidean, elkar hobeto ezagutzen hasiko dira, baita Ekuadorko berri eta ekuadortarren berri izaten ere. Bidaiak ordu batzuk baino ez du iraungo, baina bizitzaren patua zer den, zirudiena baino askoz urrunago dago jomuga.

**Juan Salvador Gaviota.** Bartlett, Hall Madril: Karma Films; Paramount, 2006.

99 min.

Richard Bachek idatzitako eleberri entzutetsuan oinarrituta dago filma. Kaio batek hegan egiten ikasteko ahalegina eta bizitzari buruz ikasitakoa kontatzen du Bachek liburuan. Nork bere burua hobetzeari eta sakrifizioari egindako gorazarrea da lana. Jonathan kaioa nekatuta eta gogaituta dago bere bizitzaren ibilera hitsarekin. Hegan egiteko teknikak saiatuz, egun batean urrundu egingo da taldetik eta zerumugaz haratago mundurik badela deskubrituko du.

**Un lugar en el mundo.** Aristaráin, Adolfo ARGENTINA: 1992.

Hazi zen herrira itzuliko da Ernesto eta bere bizitzan mugarri izan ziren nera-bezaroko hainbat gertaera hasiko da gogoratzen (bihotzaren galbahetik iragazten). Mario eta Ana gurasoen historia da, irakaslea aita eta medikua ama, Argentinako eskualde galdu batean; Neldaren historia da, bere herriarekin, herri xehearekin konprometitutako mojarena. Hansen historia ere bada, dirudiena bezain zinikoa ez den espainiarrarena; eta Andradarena, terrateniente bihozgabe baten tresna bidegabearena; Luciana ugazabaren alabarena, bere historiaren, aitaren, sexuaren zamak makurtutako neskarena... Pertsonen BIZITZARI buruzko historia da, pertsona horien ideia, balio, beldur, amorru eta esperantzen historia. Baina, oroz gain, munduan bere lekua aurkitu zuen aita baten eta leku horren bila dabiltzan beste hainbat pertsonaiaren historia da.

**The Edukators.** Weingartner, Hans. Bartzelona, 2004.

124 min.

Hiru *hezitzaileen* burubidea da filmaren ardatza; munduaren egoera aldatzeko grinak bultzatuta elkar hartzen duten hiru ekintzaile antikapalistaren burubidea. Gazteak auzo burgesetako etxeetan sartzen dira gauez eta, ondasun bakar bat ere lapurtu gabe, jabeen bizitza antolatua asaldatzea lortzen dute.



## IRAKURKETA OSAGARRIAK

Hainbat irakurgai proposatuko ditugu segidan; banaka edo taldean landu daitezke irakurketa horiek. Banaka: sakon irakurriz, bat ez gatozen alderdiak edo adierazgarriak iruditzen zaizkigun elementuak adieraziz eta, ondoren, prestatzailearekin, alderdi horien gainean solastuz. Taldean: banaka irakurri ondoren, talde txikietan aztertuko da adierazgarria iruditutakoa edo ados ez gauden hori, eta irakurritakoa osa dezaketen zenbait puntu gehitzeko eskatuko zaie taldekideei.

Bidaiari arduratsuaren dekalogo. [www.turismo-solidario.es/africa/decalogo.do](http://www.turismo-solidario.es/africa/decalogo.do)

Morollon, Mar. (1991). Garapenerako lankidetzaren txostena. *En Pie de Paz*, 51 orr. 36-42.

Viñuales, Víctor. (1997). Desarrollo, maldesarrollo y cooperación al desarrollo: África subsahariana. *Seminario de Investigación para la Paz*, orr. 245-258.

